

Balioa

Gure proiektua, janari osasuntsua eskainiko duen jatetxe azkarra aurrera ateratzean datza. Nahi duzun eguneko edozein momentuan bertara joateko eta elikagai fresko eta goxoz disfrutatzeko aukera dugu.

Etxean janaria prestatzeko denborarik ez dutenei, modu osasuntsu batean elikatzeko aukera emango diegu. Gure produktuak elikadura egokia mantentzea eta eguneroko bizitza erraztea dute helburu. Horrela, erosotasuna handituko denez bizi-kalitateak gora egingo du.



Eskainiko ditugun produktuak mesedegarriak izango dira heldu, gazte nahiz umeentzat.

Guztiak disfrutatu ahal izango dituzte gure zerbitzuak neurri berdinean. Gainera, salduko ditugun elikagaiak bertakoak izango direnez, hemengo nekazaritza eta ekonomia sustatzen lagunduko du.

Gure janaria, gustuko duzun moduan kontsumitu eta disfrutatu ahal izango duzu, jatetxean bertan edo zure gustuko lekuan. Gure jatetxea zabala izango denez nahikoa leku egongo da modu erosoan jateko. Terraza zerbitzua eskainiko dugu eta elbarrientzako erosotasun guztiak.



Gure zerbitzuak eskuragarri egongo dira edozeinentzat, kotxetik, telefonoz edo internet bidez eskatzeko aukera ere izango delako. Modu honetan, adostutako gunera eramango dugu eskatutakoa, eta bertan ordaintzeko aukera izango dugu. Honela, erosotasun handiagoa eskainiko dugu.

Umeentzat ohe elastikoak jarri ditugunez, familiak erakartzea lortuko dugu, eta umeek denbora asko pasatuko dutenez jolas-parkean, gehiago kontsumitzea lortuko dugu, jolas-parkea jartzeak dakartzan balio erantsiari esker.

